

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea zerga errolda eta bilketa egiteko aldia, Larrabea urbanizazioko etxeko edateko urarena eta saneamenduarena, 2021eko hirugarren hiruhilekoari dagokiona**

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2021eko hirugarren hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onetsizat emango da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ezean.

Ordainagiriak 2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko era:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2021eko abenduaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainketa gutunarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak:

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako erreklargua gehituko zaie.

Legutio, 2021eko urriaren 15a

*Alkatea*

**JON ZUAZO ZUBERO**